

Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1931'ko Iibel-
tzaren 22'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde ta urgazletatik: Manterola, Be-laustegigoitia, Oleaga ta Ormaetxea. Otoitzez asi da.

I.—Manterola jaunak esan dizkigu, aurtengo *Jaun-goiko-Zale*'ren asmoak. Kristiñau-ikasbidea dala-ta, onek eman oidituen ume-sariak ugariago izango dirala iragari digu ta gogoz entzun dio Euskaltzaindiak.

II.—Durango'ko epaile jaunari gure zorion bero beroenak agertu bear dizkiogu, euskal-arazo batean zuzen ta zintzo azaldu dalako. Biar idatziko degu berari zuzenduko diogun zorion-idazkia.

III.—Urkijo jaunak irakuri digu bere lan bat. Oraintxe dala egun batzuek Bidasotik aruzko idazle batzuek aipatu dute, Lesaka'n euskerazko antzerki bat antzertu ote zan 1566'gañen urtean. Urkijo jaunak, bere lanez, adierazten digu etzala alako antzerkirik izan: erderazkoa zala antzerki au, ederki aurkeztu digu Urkijo jaunak.

IV.—Eguskitza jaunak eñian bildutako euskalitz jatorak azaldu dizkigu.

V.—Azkue jaunak esakera batzuek eta.

VI.—Euskaltzaindi guziak, ao batez, eskatu bear du *Novel*-en aurtengo saria Menendez Pidal jaunari eman dezaiotela.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, otoi-
tzez amaitu du batzaraldi au.

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1931'ko Iibel- tzaren 23'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde, Intzagarai ta urgazletatik: Be-laustegigoitia, Oleaga ta Ormaetxea. Otoitz egin da,

I.—Durango'ko epaile jaunari biali bear zaion idazkia moldatzen Euskaltzaindiak jardun du: ta zer-bait izpidetu ondoren auxe atera da :

«La Academia ha acordado haber visto con agrado la conducta del Sr. Juez de 1.^a Instancia de Durango, en un incidente que estos días se ha promovido, por el respeto que revela a la voluntad de los padres que desean imponer a sus hijos un nombre, que a juicio de aquellos denota su origen, derecho que está reconocido por la ley, y que aquel digno funcionario ha amparado.»

II.—Eguskitza jaunak-*gintza-kintza* atzekitaz itz egin du: Azkuek nonbait bere *Morfologian: oficio* ikertzen duela dio ta Eguskitzak dasa *oficio* ezik, *accion* ere askotan ikertzen duela. Lan au gure *Eus-ker*a-n argitaratuko degu.

III.—Aita Intzak eman digu, orain aixtian Iruñan izan diran euskal-jaien beñi. Aldundi eta Udalak jai abetarako sorospidea eman zuten ta gañera, alduak eta udalekoak euskal-jai oietan beren burua agertu dute. Txistulari ta dantzariak izan dira: umeak sariztu dituzte, batez ere bertan azaldu ziran beñogeñi bat, euskera ederki zekitenak. Jakiña: euskal-jai abek Na-